

Jaun hori:

Honekin batera Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak 2018ko martxoaren 20ko bilkuran, onartutako Erakunde Adierazpenari buruzko egiaztagiri hau bidali dizut, jarraian zehazten den gaiaren ingurukoa dena:

**ERAKUNDE ADIERAZPENA, OROIMEN
DEMOKRATIKOARI BURUZKOA.**

Dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazi dizut.

Donostian, 2018ko apirilaren 9an.

Estimado Sr.:



Adjunto remito certificación relativa a la Declaración Institucional aprobada, por la Junta de Portavoces del Ayuntamiento de San Sebastián el pasado 20 de marzo de 2018, referida a:

**DECLARACIÓN INSTITUCIONAL SOBRE
MEMORIA DEMOCRÁTICA.**

Lo que le comunico a los efectos procedentes.

En San Sebastián, a 9 de abril de 2018.



**DONOSTIAKO UDALEKO IDAZKARI NAGUSIA /
EL SECRETARIO GENERAL DEL AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN**



Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga

Presidente del Gobierno
Excmo. Sr. D. Mariano Rajoy Brey
Complejo de La Moncloa
Avda. Puerta de Hierro s/n
28071 MADRID

MINISTRO DE JUSTICIA
EXCMO. SR. D. RAFAEL CATALÁ POLO
CALLE DE LA BOLSA Nº8
28012 MADRID



[Handwritten signature]

Don IÑAKI TXINTXURRETA PERDIGUERO Jn.

Donostiako Udaleko Bitarteko Idazkari Nagusia naizen honek Secretario General en funciones del Ayuntamiento de San Sebastián

Neuk ziurtatua: Certifico:

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2018ko martxoaren 20an izan zuen ohiko bileran, erakunde adierazpen hau onartu zuen, gehiengoz:


Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 20 de marzo de 2018, aprobó, por mayoría, la siguiente Declaración Institucional:

“Agerikoa da gaur egun oso zaila dela legedi espainiarrak frankismoaren biktima guztiak aitortzeko jartzen dituen trabak gainditzea. Oztopo horien artean daude, besteak beste: auzitegi frankisten ebazpenak oraindik indarrean egotea; erregimen frankistak eta haren laguntzaileek burututako gerra krimenen eta gizadiaren aurkako krimenen erantzuleak epaitzeko eragozpenak; egiarako, justiziarako eta biktima guztiak onbideratzeko eskubideak bermatzeko ikerketa historikorik eta judizialik ez egotea; eta gaur egun indarrean dagoen Oroimen Historikoaren Legeak dituen muga nabarmenak.

“En la actualidad se hace evidente la existencia de serias dificultades a la hora de superar las distintas trabas al reconocimiento de todas las víctimas del franquismo que aún existen en la legislación española, trabas entre las que se encuentran la vigencia de las sentencias de los tribunales franquistas, los impedimentos para juzgar a los responsables de los crímenes de guerra y lesa humanidad cometidos por el régimen franquista y sus colaboradores, la ausencia de investigaciones históricas y judiciales que garanticen el derecho a la verdad, a la justicia y a la reparación de todas las víctimas y las serias limitaciones de la actualmente vigente ley de Memoria Histórica.

Aitzitik, herrialde demokratiko batean, frankismoaren biktima guztiei egiarako, justiziarako eta onbideratzeko eskubideak ziurtatu behar zaizkie eta errepikatuko ez dela bermatu, Nazio Batuek onartutako adierazpenak eta arauak betez. Espainiako zenbait auzitegiren ebazpenek esan dute Legeak frankismoaren krimenak epaitzea eragozten duela, baina Amnistia legearen gaineko jarduerak ezin dira aitzakiatzat erabili ebazpen horiei arrazoi emateko,


Sin embargo, en un país democrático es necesario garantizar los derechos de todas las víctimas del franquismo a la Verdad, la Justicia y la Reparación con garantías de No Repetición, conforme a las distintas declaraciones y normas aprobadas por las Naciones Unidas. Ninguna actuación sobre la ley de Amnistía debería poder ser interpretada como dar la razón a las distintas resoluciones de los tribunales españoles – en especial respecto a la





*batik bat Auzitegi Gorenaren
Jurisprudenziari dagokionez.*

1947an Nurenbergeko Printzipioak onartu zirenetik, Nazioarteko Zuzenbideak debekatzen du gizadiaren kontrako krimenei eta gerra krimenei amnistia ematea, eta, era berean, 1948ko Genozidioaren gaineko Hitzarmenak krimen horiek kasu orotan epaitzera behartzen du. Ondoren, 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak — 15.2. artikuluan— xedapen hori bera ezarri zuen. Horrenbestez, Auzitegiek ez zuten inolaz ere interpretatu behar 1977ko urriaren 11ko Amnistia Legearen 2. artikulua e) eta f) idazpuruek funtzionario publikoek gauzatutako gerra krimenei, gizadiaren kontrako krimenei edo genozidioei amnistia ematen zietela. Izan ere, manu horiek nazioartekotzat hartzen ez diren delituei edo amnistia eman ezin zaien eta preskriba ezin daitezkeenei amnistia ematea baino ez dute ahalbidetzen.




Hori dela eta, hauxe da gure

ERAKUNDE ADIERAZPENA

1. Donostiako Udalak Estatuko Gobernuari eskatzen dio Oroimen Historikoaren Legea alda dezala, honako hauek txertatzeko: frankismoko auzitegiek aurkari politikoen eta legezketasun errepublikarraren defendatzaileen kontra emandako epaiak iure (legez) baliogabetzea; Estatuari behartzea hobiak irekitzera eta giza hondarrak identifikatzera; Estatuari behartzea gerra delituei edo gizadiaren kontrako delituei buruzko jarduera judicialak abiaraztea eraildako pertsonengatik zeinen hondarrak hobi horietan dauden.

Jurisprudencia del Tribunal Supremo- que han venido manteniendo que la Ley impide juzgar los crímenes del franquismo.

El Derecho Internacional, desde la aprobación de los Principios de Núremberg en 1947, prohíbe la amnistía de los crímenes de lesa humanidad y de guerra, al igual que la Convención sobre Genocidio de 1948 obliga a perseguir este crimen en todos los casos. Posteriormente, el Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos de 1966 —artículo 15.2- estableció la misma previsión. Por lo tanto, el artículo 2o, literales e) y f) de la Ley de Amnistía de 11 de octubre de 1977, nunca debió ser interpretado por los Tribunales como una amnistía respecto a crímenes de guerra, de lesa humanidad o genocidio cometidos por funcionarios públicos, sino que dichos preceptos solamente permiten amnistiar delitos no considerados internacionales o no amnistiables e imprescriptibles.



Por este motivo, presentamos la siguiente:

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

1. El Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno del Estado a modificar la Ley de Memoria Histórica introduciendo: la nulidad de iure (por ley) de las sentencias emitidas por los tribunales del franquismo contra opositores políticos y defensores de la legalidad republicana; la obligación del Estado de proceder a la apertura de fosas y a la identificación de los restos humanos; obligación del Estado de iniciar actuaciones judiciales respecto a los delitos de guerra o de lesa humanidad cometidos respecto a las personas asesinadas cuyos restos se encuentran en dichas fosas.



2. Donostiako Udalak Estatuko Gobernuari eskatzen dio frankismoaren biktimei buruzko lege bat onartzea, erregimen frankista legez kontraktatzat kalifikatzeko —Nazio Batuen Batzar Nagusiak emandako ebazpenen ildotik—, frankismoaren biktimak politikoki behar bezala aitortzeko eta oraindik aitortu ez zaizkien eskubide eta prestazio sozialak emateko”. =====

2. El Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno del Estado a aprobar una ley de víctimas del franquismo, que califique el régimen franquista de ilegítimo e ilegal —en la línea de las resoluciones emitidas la Asamblea General de las Naciones Unidas- y otorgue el debido reconocimiento político a las víctimas del franquismo y reconozca aquellos derechos y prestaciones sociales que en su caso aun no les hayan sido reconocidas”. =====

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2018ko apirilaren 3an.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 3 de abril de 2018.

**BITARTEKO IDAZKARI NAGUSIA –
EL SECRETARIO GENERAL EN FUNCIONES :**



Iñaki Txintxurreta Perdiguero

**ALKATEAK O. E. -
V. ° B. ° DEL ALCALDE:**

